

Eudelen mahai-negoziatzailearen bezperan ELA eta LABek egin dugun 2 ordutako lanuzteak jarraipen zabala izan dute

75 mobilizazio baino gehiagotan EUDELi eta EAJ, EH Bildu eta PSE-EEri exijitu diegu Udalhitzeko eta udaletako mahaietan edukiak orain ekartzeko

Gaurko egunerako, EUDELek Udalhitzeko mahai-negoziatzailea deitua duen bezperarako, ELA eta LAB sindikatuak 2 ordutako lanuztea deitu dugu Udalhitzeko zein hortik kanpoko udaletako (hiriburuak eta udal handiak gehien bat) negoziazioetan udal langileek eskatzen ditugun aldarrikapenak mahaietara ekarri ditzaten.

2 ordutako lanuzte honek 75 udal baino gehiagotan mobilizatzea eragin du, lanuztean udaletako zein udal erakunde publikoetako langileek parte hartu dutelarik. Ehunka izan dira gaurko egunez tokiko admininistrazioen aurrean mobilizatu diren langileak eta tokiko administrazioei, hauek gobernatzen dituzten alderdi politikoei zein EUDELi exijitu diete mahai-negoziatzaileetara edukiak orain ekartzeko, soldata eta enpleguari dagozkion gaiak hemen negoziatu behar direla aldarrikatzearekin batera.

Udal eremuan urte asko daramagu lan baldintzak hobetuko dituen akordio integralik gabe eta mahai gehienak ez daude martxan. Bitartean, aurreko urtean Udalhitzeko negoziazio mahaia martxan jarri zen eta orain dela 16 urte berriro gabeko lan-baldintzak adosteko aukera irekita dago. Alabaina, Udalhitzen negoziazioan urte eta erdi pasa den arren, oraindik orain EUDELek eduki eskasak jarri ditu mahai gainean eta orokorrean konpreziorik gabekoak dira. Udalhitzen kanpo dauden udaletan berdina gertatzen ari da.

Testuinguru horretan negoziazio-mahaietara edukiak eraman eta lan-baldintzen hobekuntza negoziatzea exijituz ELA eta LAB sindikatuok adosturiko aldarrikapen komun batzuen baitan mobilizazio eta greba dinamika abiatu genuen. Zentzu horretan, gaurko lanuzteak eta langileek erakutsitako indarrak alderdi politikoak mugiarazi dituen edo ez ikuskizun dago, biharko mahai negoziatzaileko edukiek argituko digute hori. Langileon aldarrikapenak mahai gainera ekarri bitartean, langileok argi daukagu abiatu dugun borrokarekin jarraitu behar dugula eta horregatik maiatzaren 14ean eta ekainaren 4ean egun osoko grebak burutuko ditugu EAEko udaletxe guztietan.

Hauek dira gaurko lanuztean eta mobilizazioetan egin diren aldarrikapenak:

- Soldatetan azken urteetan galdutako eros ahalmenaren berreskurapena, aurretik galdutakoaren zorra onartu eta berreskuratzeko konpromisoa barne. Eta udaletan azpikontrataturiko langilerik ez egotea 1500€ko gutxieneko soldataren azpitik.

- Enpleguari lotuta pribatizazio gehiagorik ez egitea eta publikazioak burutzea, egiturazko lanpostuak aitortzea, sektore feminizatueta jardunaldiak %100ekoak izatea eta behin-behinekotasun tasa errealak jaitea prozesu bidez eta langileak kontsolidatuz.
- Gazteberritze neurriak adostea: batetik, adinagatiko lanaldia murrizteko eskubidea aitortzen duten neurriak soldata eta kotizazioak murriztu gabe; eta bestetik, errelebo kontratua bermatzea langile guztiontzat.
- Jardunaldia jaitea eta musika eskoletan zein euskaltegietan irakastorduak jaitea ere.
- Lan Osasunari loturiko neurriak adostea: baja bukatzen den arte %100 ordainsari konpentsazioa jasotzea; bajen kudeaketa publikoa egitea eta ez mutualitateen bitartez; lan kargak arintzeko neurri zehatzak adostea ordezkapenak barne; eta arrisku psikosozialen eta arrisku ergonomikoen ebaluazio adostuak egitea zein honi loturiko neurriak ezartzea.
- Hautaketa prozesuak tokiko erakundeek egiteko derrigortasuna ezartzea, suhiltzaileak eta tokiko poliziak prozesuak barne, eta hauek gutxienez 3 urtean behin egitea, lekualdatze lehiaketekin batera.
- Euskarari dagokionez, lanpostu guztiak elebidunak izateko neurriak ezartzea; batetik, sarbidean bi hizkuntzak derrigorrezkoak izanik; eta bestetik, egun lanean ari direnak euskalduntzeko, euskara planak adostuz.
- Berdintasun neurriak adostea: soldata arrakalekin amaitzeko neurriak; jazarpen protokoloen jarraipena, aplikazioa eta ebaluazioa egitea; LGTBIfobiaren kontrako protokolo eraginkorrak; edota kolektibo maskulinizatueta, neurri eraginkorrak egoerari buelta emateko.
- Kontziliatzeko neurriei dagokienez, batetik, zaintzeko lanaldi murrizketak eta eszedentziak adostea, zaindutako pertsonaren adin mugarik gabe; eta bestetik, loturagramen bidezko baimenak onartu eta aitortzea.
- Trantsizioa ekosozialerako neurriak adostea.

Bukatzeko, lanuztea egin eta mobilizazioeta parte hartu duten langile guztiak zoriondu nahi ditugu. Gero eta gehiago gara, jarraitu dezagun lanean eta landu ditzagun maiatzaren 14ko zein ekainaren 4ko greba egunak. Udalhitzen zein udaletako negoziatioeta edukiak orain eskuratzeko modu bakarra da! Beraz, presionatu ditzagun alderdi politikoak langileoi dagokiguna eskuratu arte!

Euskal Herrian, 2026ko apirilaren 23an.

El paro de 2 horas que hemos llevado a cabo ELA y LAB en vísperas de la mesa negociadora de Eudel ha tenido un amplio seguimiento

En más de 75 movilizaciones hemos exigido a EUDEL y a PNV, EH Bildu y PSE-EE que lleven ahora los contenidos a las mesas de Udalhitz y ayuntamientos

Para el día de hoy, víspera en la que EUDEL ha convocado la mesa negociadora de Udalhitz, los sindicatos ELA y LAB hemos convocado un paro de 2 horas para que traigan en las negociaciones tanto de Udalhitz como de ayuntamientos ajenos a la misma (capitales y grandes ayuntamientos en su mayoría) las reivindicaciones que solicitamos las personas trabajadoras en las negociaciones tanto de Udalhitz como de ayuntamientos ajenos a la misma (capitales y grandes ayuntamientos en su mayoría).

Este paro de 2 horas ha provocado la movilización en más de 75 ayuntamientos, en el que han participado trabajadores y trabajadoras tanto de ayuntamientos como de organismos públicos municipales. Han sido cientos los y las trabajadoras que se han movilizado hoy ante las administraciones locales y han exigido a las administraciones locales, a los partidos políticos que las gobiernan como a EUDEL que traigan ahora los contenidos a las mesas negociadoras, al tiempo que han reivindicado que los temas relativos al salario y al empleo deben negociarse aquí.

En el ámbito municipal llevamos muchos años sin un acuerdo integral que mejore las condiciones laborales y la mayoría de las mesas no están en marcha. Mientras tanto, el año pasado se puso en marcha la mesa de negociación de Udalhitz y está abierta la posibilidad de acordar las condiciones laborales que llevan sin mejorarse más de 16 años. Sin embargo, a pesar de que ha pasado año y medio en la negociación de Udalhitz, los contenidos que EUDEL ha puesto sobre la mesa son insuficientes y en general carentes de concreción. En los ayuntamientos que están fuera de Udalhitz está pasando lo mismo.

En ese contexto, exigimos llevar contenidos a las mesas de negociación y negociar la mejora de las condiciones laborales, y en el marco de unas reivindicaciones comunes acordadas por ELA y LAB iniciamos una dinámica de movilizaciones y huelgas. En ese sentido, está por ver si el paro de hoy y la fuerza mostrada por las y los trabajadores ha movido o no a los partidos políticos; los contenidos de la mesa negociadora de mañana nos lo aclararán. Mientras no lleven a las mesas de negociación las reivindicaciones de las personas trabajadoras, tenemos claro que debemos continuar con la lucha que hemos emprendido y por eso el 14 de mayo y el 4 de junio llevaremos a cabo huelgas de jornada completa en todos los ayuntamientos de la CAV.

Estas son las reivindicaciones mínimas que hemos acordado:

- Acordar medidas relacionadas con la Salud Laboral: compensación salarial del 100% hasta la finalización de la misma; gestión pública de las bajas y no a través de las mutuas; consensuar medidas concretas para aliviar las cargas de trabajo incluyendo sustituciones; y realizar evaluaciones consensuadas de riesgos psicosociales y ergonómicos y establecer medidas al respecto.

- Recuperación de la capacidad adquisitiva perdida en los últimos años, incluyendo el compromiso de reconocimiento y recuperación de la deuda previamente perdida. Y que ninguna persona trabajadora subcontratada esté por debajo del salario mínimo de 1500 €.
- En cuanto a medidas relacionadas con el empleo: evitar nuevas privatizaciones y publicar lo privatizado, el reconocimiento de puestos estructurales, jornadas del 100% en sectores feminizados y la reducción de las tasas reales de temporalidad mediante procesos y consolidación del personal eventual.
- Acordar medidas de rejuvenecimiento de plantilla: por un lado, Derecho a la reducción de jornada por razón de edad, sin reducción de sueldo ni de cotizaciones; y por otro, garantizar los contratos de relevo para todas las personas trabajadoras.
- Reducción de jornada laboral y reducción de horario lectivo en escuelas de música y euskaltegis.
- Acordar medidas relacionadas con la Salud Laboral: compensación salarial del 100% hasta la finalización de la misma; gestión pública de las bajas y no a través de las mutuas; consensuar medidas concretas para aliviar las cargas de trabajo incluyendo sustituciones; y realizar evaluaciones consensuadas de riesgos psicosociales y ergonómicos y establecer medidas al respecto.
- Establecer la obligatoriedad de que los procesos de selección se realicen por las entidades locales, incluidos bomberos y policías locales, y que estos se realicen al menos cada 3 años, junto con los concursos de traslados.
- En lo que respecta al euskera, establecer medidas para que todos los puestos de trabajo sean bilingües, por un lado, la obligatoriedad de ambos idiomas para ocupar por primera vez un puesto de trabajo; y por otro, acordando planes de euskera para euskaldunizar a quienes trabajan en la actualidad.
- Acordar medidas de igualdad: medidas para acabar con las brechas salariales; seguimiento, aplicación y evaluación de los protocolos de acoso; protocolos eficaces contra la LGTBIfobia; o medidas eficaces para revertir la situación en colectivos masculinizados.
- En cuanto a las medidas de conciliación, por un lado, acordar reducciones de jornada y excedencias para el cuidado, sin límite de edad de la persona atendida; y por otro, aprobar y reconocer permisos mediante vinculogramas.
- Medidas para la transición ecosocial.

Para finalizar, queremos felicitar a todas las personas trabajadoras que han secundado el paro y han participado en las movilizaciones. Cada vez somos más, sigamos trabajando



en esta línea las jornadas de huelga del 14 de mayo y del 4 de junio. ¡Es la única forma de conseguir contenidos tanto en Udalhitz como en las negociaciones de los ayuntamientos! ¡Por tanto, presionemos a los partidos políticos hasta que logremos lo que nos corresponde!

En Euskal Herria, a 23 de abril de 2026.